

Carta de despedida

Agur-gutuna

I. Astigarraga Aguirre

Presidenta de la SVNPN



Itziar Astigarraga Aguirre

Queridos pediatras y residentes de pediatría:

Han pasado 4 años desde que asumí con mucha ilusión el reto de la presidencia de la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría y es el momento de volver a agradecer a todos los socios la confianza y apoyo durante todo este tiempo. Aprovecho esta carta para expresar públicamente mi reconocimiento por la excelente labor realizada por todos los miembros de la junta que he tenido la suerte de presidir; muchos pediatras y residentes que han dedicado su esfuerzo y su tiempo de forma generosa para defender nuestra profesión como especialistas responsables de cuidar la salud de los niños, niñas y adolescentes. *Mila esker bihotz, bihotzez.*

En la primera reunión de la nueva junta en enero de 2020, en la que recogimos el testigo de la junta anterior liderada por el Dr. Javier Korta, no podíamos imaginar los retos que nos íbamos a encontrar dos meses después. La declaración de la pandemia COVID alteró completamente nuestras vidas, tanto a nivel personal como profesional. Toda la sociedad quedó afectada por una nueva realidad con aislamiento social, mascarillas, múltiples restricciones y cambios continuos. Los pediatras tuvimos que centrar todos nuestros esfuerzos en dar la mejor respuesta sanitaria posible frente a la nueva infección del virus SARS-CoV-2, que provocó una terrible pandemia mundial. Se tuvieron que establecer medidas de salud pública para la protección de la población, las decisiones sanitarias fueron muy difíciles y afectaron notablemente al funcionamiento de los centros sanitarios y al trabajo de los pediatras. En toda la pandemia COVID el trabajo de la junta de la SVNPN fue intenso para defender el trabajo de los pediatras y la salud infantil. Todos nuestros esfuerzos estaban centrados en la lucha contra la infección, en la adaptación de nuestro

Pediatra eta pediatriako egoiliar maiteak:

Lau urte igaro dira Euskal Herriko Pediatría Elkartearen lehendakaritzaren erronkari ilusio handiz heldu nionetik, eta bazkideei berriro ere eskerrak emateko ordua da, urteotan nigan izan duten konfiantzagatik eta eskaini didaten babesagatik. Bide batez, lehendakari izan naizen batzordeko kide guztiek egindako lan bikaina goraiatu nahi dut publikoki. Pediatra eta egoiliar askok ahalegina eta denbora eskaini diote, eskuzabaltasunez, gure lanbidearen aldeko jardunari, haurren eta nerabeen osasuna zaintzeko ardura dugun espezialiston ogibidea defenditzeari. Mila esker, bihotz-bihotzez.

2020ko urtarrilean, Javier Korta doktoreak zuzendu zuen aurreko batzordearen lekukoa jaso genuen. Bilera hartan, batzorde berriko kideok ezin genituen imajinatu bi hilabeteren buruan aurrean izango genituen erronkak. COVID-19aren pandemiak goitik behera aldatu zuen gure bizimodua, maila pertsonalean zein maila profesionalean. Egoera berriak gizarte osoan izan zuen eragina: isolamendu soziala, maskarak, murrizketa ugari eta etengabeko aldatetak. Pediatrok gure ahalegin guztiak bildu behar izan genituen, osasun-erantzunik onena emateko eta mundu osoan pandemia izugarria eragin zuen SARS-CoV 2 birusaren infekzio berriari aurre egiteko. Osasun publikoko neurriak ezarri behar izan ziren biztanleria babesteko. Osasun-erabakiak oso zailak izan ziren, eta nabarmen eragin zuten osasun-zentron funtzionamenduan eta pediatren lanean. COVID-19aren pandemia osoan zehar, EHPEren batzordeak lan handia egin zuen pediatren jarduna eta haurren osasuna defenditzeko. Infekzioaren aurkako borrokara bideratu genituen ahalegin guztiak, gure lana egoera berrira egokitzea, eta adingabeak babestera, txertoak eskuragarri izan genituen arte. Jarrita genituen helburuetako asko atzeratu egin behar izan ziren, baina pandemiak lan egiteko

trabajo a la nueva realidad y en la protección de los menores, cuando las vacunas empezaron a estar disponibles. Muchos de los objetivos que nos habíamos planteado tuvieron que esperar, pero la pandemia nos trajo también una nueva forma de trabajar con reuniones virtuales o mixtas, que se mantendrán para facilitar la conciliación familiar y personal de los pediatras. Fueron momentos de aplausos de la sociedad y de reconocimiento máximo del trabajo que realizábamos los profesionales sanitarios, pero también momentos de mucho sufrimiento, miedo e incertidumbre. Para los menores fueron muchos meses difíciles con consecuencias negativas en la actualidad, especialmente en la salud mental.

Desde finales de 2021, en la junta directiva pudimos dedicarnos a otros temas importantes para la atención pediátrica. Destacar la participación en la difusión del *Libro Blanco de las ACEs pediátricas* y la defensa de las especialidades pediátricas en las reuniones celebradas con las Consejeras de los Gobiernos de Euskadi y Navarra. La colaboración entre las sociedades regionales y las sociedades científicas fue muy estrecha. A nivel local, la unión entre la SVNP y ANPE permitió defender conjuntamente el derecho de los menores a una atención especializada, tanto por los pediatras de atención primaria como por los diferentes especialistas de áreas específicas. A pesar del intenso trabajo de la AEP y la publicación del libro blanco, el real decreto publicado posteriormente plantea un proceso de reconocimiento muy lento y complejo, por lo que la nueva junta directiva seguirá trabajando para resolver este grave problema de falta de reconocimiento y amparo legal que dificulta mucho las contrataciones y procesos selectivos en todas las CC.AA., también en Euskadi y Navarra. Nos hubiera gustado avanzar más, porque la realidad es que, a pesar del esfuerzo de todos, hemos conseguido poco.

Me parece importante plantear la vida y el trabajo con optimismo. En la mirada atrás sobre los logros conseguidos en estos 4 últimos años quiero reconocer el gran trabajo de todas las juntas anteriores y de los miembros de la junta actual, porque hemos dado continuidad a muchos retos planteados previamente y hemos trabajado con ilusión y dedicación. Destacar la reflexión interna sobre cómo defender y desarrollar nuestra especialidad frente a los cambios actuales sociales y asistenciales, la buena colaboración con la AEP y otras sociedades en múltiples temas importantes para la salud infantil, el buen programa de formación continuada a través de la organización de reuniones científicas en nuevos formatos híbridos (presencial y virtual), el aumento de las publicaciones del boletín de la SVNP con su nuevo formato electrónico, el incremento de las becas y ayudas económicas para ampliar estudios o desarrollar proyectos de investigación, la renovación y mejor funcionamiento de la web y la mayor presencia en los medios de comunicación junto con la AEP. También destacan las mejoras en las gestiones administrativas, gracias al convenio firmado con el Colegio de Médicos de Bizkaia en noviembre de 2022 y al buen funcionamiento de la oficina técnica que representa un gran apoyo para nuestra SVNP.

En este momento de entrega del testigo de la presidencia, junto con otros miembros de la junta (tesorera, vicepresidentes, vocales), quiero transmitir todo mi cariño y reconocimiento a la nueva presidenta, Ainhoa Iceta, y a toda la renovada junta y expresar todo mi apoyo y colaboración. Nuestra querida SVNP seguirá trabajando con ilusión y dedicación para

modu berri bat ere ekarri zigun: bilera birtualak edo mistoak egiten hasi ginen. Eutsi egin diogu horri, pediaren kontziliazio familiarra eta pertsonala errazteko. Gizartearen txaloak eta osasun-langileen lanaren goraipamenak ezin ozenagoak izan ziren, baina, aldi berean, sufrimendu, beldur eta ziurgabetasun handiko uneak izan ziren. Adin txikikoentzat, zailtasun handiko hilabete asko izan ziren, eta ondorio txarrak nabariak dira gaur egun, batez ere buruko osasunari dagokionez.

2021aren amaieratik aurrera, arreta pediatrikoan garrantzitsuak diren beste gai batzuei heldu ahal izan genien zuzendaritza-batzordean. Azpimarragarriak dira TEA pediatrikoen liburu zuriaren zabalpenak izan genuen parte-hartzea eta Euskadiko eta Nafarroako gobernuetako sailburuekin izandako bileretan espezialitate pediatrikoen alde egin genuen defentsa. Eskualdeetako elkarteen eta zientzia-elkarteen arteko lankidetzak oso estua izan zen. Toki-mailan, EHPE eta ANPE elkarteen bat-egiteari esker, elkarrekin defenditu ahal izan genuen adingabekoek arreta espezializatua —lehen arretako pediaren zein arlo espeziifikoetako espezialisten arreta— jasotzeko duten eskubidea. AEP elkarrekin lan eskerga egin arren eta liburu zuria argitaratu batzuen ere, ondoren plazaratutako Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera, aitortza-prozesua oso geldoa eta konplexua izango da. Hori dela eta, zuzendaritza-batzordeak lanean jarraitu du aitortzarik eta babes legalik ezaren arazo larria konpontzeko; izan ere, arazo horrek asko zailtzen ditu kontratazioak eta hautapen-prozesuak autonomia-erkidego guztietan, bai eta, beraz, EAEn eta Nafarroan ere. Gai horretan ez dugu aurreratu nahi genuen beste; egia esanda, guztion ahalegina handia izan bada ere, ezer gutxi lortu dugu.

Garrantzitsua iruditzen zait bizitza eta lana baikortasunez hartzea. Atzera begiratu eta azken lau urteotako lorpenei erreparatuta, aurreko batzorde guztien eta egungo batzordekideen lan nabarmena goraipatu nahi dut, aurretik planteatutako erronka askori jarraipena eman diegulako eta ilusioz eta gogotsu jardun dugulako. Hauak nabarmenduko nituzke, besteak beste: gure espezialitatea egungo aldageta sozialen eta asistentzialen aurrean defenditu eta garatzearen inguruko barne-hausnarketa; AEP eta beste elkarte batzuekiko lankidetzak bikaina haurren osasunerako garrantzitsuak diren gai askotan; formatu hibridoetan (aurrez aurreko jarduna eta birtuala uztartzen dituzten formatuetan) antolatutako bilera zientifikoek bidez eskainitako etengabeko prestakuntzako programa egokia; EHPEren buletinaren argitalpenak ugaritzea formatu elektronikoen berriekin; ikasketak zabaltzeko edo ikerketa-proiektuak lantzeko beken eta laguntza ekonomikoaren gorakada; webgunea berritu eta funtzionamendu hobea lortzea, eta AEPekin batera hedabideetan presentzia handiagoa izatea. Aipagarriak iruditzen zaizkit, halaber, administrazio-izapideetan izandako hobekuntzak, 2022ko azaroan Bizkaiko Medikuen Elkargoarekin sinatutako hitzarmenari eta bulego teknikoaren funtzionamendu onari esker. Bulego teknikoak laguntza handia ematen dio gure EHPE elkarteari.

Lehendakaritzaren lekukoa emateko une honetan, batzordeko beste partaide batzuekin batera (diruzaina, lehendakariordeak, kideak), maitasuna eta aintzatespena helarazi nahi dizkiet Ainhoa Iceta lehendakari berriari eta berritutako batzorde osoari. Nire babes eta laguntza osoa eskaini nahi diet. Gure EHPE maitiak ilusioz eta gogotsu lanean jarraituko du munduko lanbiderik onena den pediatriaren garapena bideratzeko, eta gure paziente pediatrikoek kalitatezko arreta integralerako duten eskubidearen alde aurrera

facilitar el desarrollo de la mejor profesión del mundo, ser pediatras, y ayudará a seguir avanzando en la defensa del derecho de nuestros pacientes pediátricos a tener una atención integral de calidad. Trabajando juntos y unidos conseguiremos mejorar la salud en la infancia y adolescencia.

Muchas gracias y mucha suerte a la nueva junta.

egiten lagunduko du. Elkarrekin eta batera lan eginez haurren eta nerabeen osasuna hobetzea lortuko dugu.

Eskerrik asko eta zorte on batzorde berriari.